

# Mugarik gabeko mundu bat



*Migrazioa,  
asilo-eskea  
eta harrera*

# Mugarik gabeko mundu bat

Hurrengo jolasa ALBOANen Mugetatik Haratago proposamen hezigarriaren esparruan kokatzen da. Migrazioaren, asilo-eskearen eta harreraren errealitatera hurbiltzeko aukera ematen du, ikuspegi pertsonal kontzientziatu eta arduratsu batetik. Antzara-joko tradizionala moldatu dugu, taulan aurrera egin ahal izateko galderak eta probak gehituz. Helburua lekualdatzeko bidaia gainditzea izango da, ibilbidearen hasieratik amaierara; horretarako, planteatuko diren galdera, proba eta erronkak gainditu beharko dira. Horrela, migratzaileek eta errefuxiatuek bizi duten errealitatea ezagutzen eta haiekin enpatizatzen lagunduko du jolasak.

## Hezkuntzako helburuak

- Migrazioaren eta asilo-eskearen errealitateari buruz sentsibilizatzea.
- Migrazioaren gaiarekin lotutako terminoak eta kontzeptuak ezagutzea.
- Garapen Jasangarriko Helburuetan eta haien potentzialtasunean sakontzea.
- Mundu-mailan kontzientzia eta ardura duten herritarrak sortzen laguntzea.
- Migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko prest eta prestaturik dauden herritar inklusiboak heztea.

## Informazio orokorra

### Hartzaileak

Jolasa 10 eta 12 urte arteko haurrentzat dago pentsatuta; hau da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat.

Baina adinez nagusiagoak diren ikasleekin ere landu daiteke, gogoetetan sakonduta. Gainera, ikasleak taldeka jarrita, gaiei buruzko galderak sortzeko ariketa bat egin daiteke.

Irakasleek erabiltzeko tresna bat izango da; haiek gidatuko dute jolasa, eta jolastu bitartean sortutako informazioak osatuko dituzte. Ildo horretan, aurrez azaldu dezakegu gaia, eta jolasa amaitzean denbora bat utzi iruzkinak egiteko eta bateratzeko.

### Jokalarikopurua

Bakarka (4 parte-hartzaile) nahiz taldeka (4 talde) jolas daiteke. Beharrezkoa da joko-mahai bakoitzean dinamizatzaile bat egotea, txartelak irakurtzeko, erantzunak osatzeko eta, azken batean, probak bete al diren ikusteko (Galderen erantzunak dituen dokumentua ikusiko duen pertsona bakarra izango da). Bakarka jokatu dela erabaki arren, proba batzuetan gainerako jokalariekin elkarlanean aritu beharko da. Taldeka jokatu gero, taldekideek proposatzen zaizkien probak egin beharko dituzte. Kasu horretan ere dinamizatzaile bat egon beharko da: irakaslea zein ikasleren bat izan daiteke.

(Badago beste bertsio bisualago bat ere, taula erraldoia duena eta toki zabal batean jolasteko aukera ematen duena.)

### Gutxi gorabeherako iraupena

Ordubete inguru.

### Edukia


- 63 laukitxo dituen taula bat (mahai-joko formatuan edo formatu erraldoian).
- **GALDERA-TXARTELAK:** 5 galdera kategoria bakoitzerako, gero azalduko direnak.
- **PROBA-TXARTELAK:** askotariko erronkak eta galderaren bat proposatzen dituzten 20 txartela, bakarka nahiz taldean egiteko.
- 4 fitxa.
- Dado bat.

### Jolasaren helburua

Bestelako mundu bat eraikitzeko aukera emango duten zenbait kontzeptu eta ekintza ezagutzea: bidezkoagoa den mundu bat, eta pertsona guztien migrazioaren, asilo-eskearen eta harreraren errealitatearekin konprometitua.

# Jolasteko argibideak

Antzara-joko tradizionalaren dinamikan oinarrituta, txandaka dagoa bota eta taulako laukitxoetan zehar aurrera egingo duzue, azkenekora iritsi arte. Mundu inklusiboa eta gizarte abegitsua adierazten du laukitxo horrek. Irteerako laukitxoak gatazkan dagoen mundu bat adierazten du, zeinetan hesiak eta eskubideen urraketak nabariak diren. Aurrera egin ahala, taulako zenbakietan eroriko zarete, eta laukitxo bakoitzak marrazki bat eta gaintitu beharreko proposamen bat izango du: mundua hobetzen lagunduko dizuten galderak eta probak dira. Jokoa helmugara iristean amaituko da; hau da, azken laukitxora iristean. Pertsona guztiak barnean hartzen eta guztion giza eskubideak errespetatzen dituen mundu abegitsu ideala adierazten du laukitxo horrek. Jarraian, laukitxo bakoitzaren esanahia interpretatzeko kodeak azalduko dira:



**1. MUNDU** baten marrazkia duen laukitxo batean erortzen bazara, “mundurik mundu, mundua hobetuko dugu” esan eta berriz botako duzu dagoa (betiko antzara-jokoa) “antzara bat eta antzara bi, berriz ere ni” esaten den bezala.



**2. EKINTZA-PROBA**ko 9 laukitxoetako batean erortzen bazara, beste taldeko norbaitek edo dinamizatzaileak dagozkion txarteletako bat hartuko du, eta egin beharreko proba irakurri. Proba mota


desberdinak daude: Mimika-probak (gorputzarekin keinuak eginez, ezin da hitz egin); marrazketa-probak (ezin da ez hitz egin ez idatzi); tabu-probak zeinetan, adierazitako kontzeptua azaldu beharko da, baina ezingo dira aipatu kontzeptu horrekin lotutako hitz “tabu” batzuk; eta taldekako erronka naiz erronka indibidualak.




**3. ATSEDE** laukitxoetako batean erortzen bazara, ez duzu ezer egin behar eta hurrengo jolakalariaren txanda izango da.

**4.** 3. Gainerako laukietan, koloreek zer gai landuko den azaltzen dute. Haietan erortzean, aurkako taldeko norbaitek edo dinamizatzaileak dagokion koloreko txartel bat hartuko du, eta horko galdera erantzun beharko da.

Galdera ondo erantzuten badute, berriz jaurtiko dute dagoa. Huts egiten badute, hurrengo taldearen edo jokalariaren txanda izango da. Ezin da jaurti bitan baino gehiagotan jarraian.




**ATZEALDE MARROIA** duten laukitxoak **GIZA MUGIKORTASUN BEHARTUA** gaiarekin lotuta daude.




**ATZEALDE BERDEA** duten laukitxoak **INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK** gaiari buruzkoak dira, baina

mugikortasun behartuaren ikuspegitik.



**ATZEALDE MOREA** duten laukitxoak **EMAKUME ETA NESKATO MIGRATZAILEAK** gaiarekin lotuta daude.



**ATZEALDE ARROSA** duten laukitxoak **HAURRAK ETA MIGRAZIOA** gaiarekin lotuta daude.



**ATZEALDE LARANJA** duten laukitxoak **GURE KONPROMISOA** gaiarekin lotuta daude; hau da, zer erantzukizun har dezakeen norbanako bakoitzak, lantzen den gaiari, besteekiko loturari, jendaurrean hartzen duen posizionamenduari, eta abarrei dagokienez.



**ATZEALDE URDINA** duten laukitxoak **GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK (GJH)** gaiarekin lotuta daude.



**ATZEALDE HORIA** duten laukitxoak **ANIZTASUNAREN ABERASTASUNA** gaiarekin lotuta daude. Gai horrek zerikusia du pertsonen, kulturen eta gizartearen arteko desberdintasunei buruzko ikuspegi positiboarekin, bizikidetzaren sustatzeko.

# Jokoan zehar hausnartzeko lagungarriak

Jokoan planteatzen diren galdera eta erronketako askok gogoeta eragiten dute eta haietako batzuk inplikazio pertsonalerako karga handia daramate jokalariek edukiarekin enpatizatu dezaten. Horregatik, atal honetan zenbait jarraibide garatuko dira; izan ere, lagungarriak izan daitezke ager litezkeen gogoetak, galderak eta eztabaidak bideratuko dituen dinamizatzailarentzat.

- Eguneroko ekintzek inpaktua dute mundu-mailan eta, hortaz, gai gara mundua hobetuko duten ekintza txikiak egiteko. Bertakoaren eta

globalaren arteko harremana uler dezakegu horrela, eta justizia soziala lortzen lagundu dezaketzen zenbait ekintza aurkitu.

- Migrazioak gertatzen dira, eta haien aurrean jarrera bat edo beste hartu beharko dugu, ezinbestean lekuz aldatu behar izan diren pertsonak nola hartu jakiteko. Horrela, migratzaileen harrera azpimarratu nahi da, herrialde askotan errealitate bat direlako jadanik. Beraz, ez dugu Hegoaldeko herrialdeetako egoera nola hobetu daitekeen pentsatu behar

soilik, baizik eta baita nola hartu ditzakegun ihes egin behar izan duten pertsona horiek gure artean ere.

- Herritar gisa, egoera horiek hobetzeko gaitasuna dugu, gizarte-mobilizazioaren eta eragin politikoaren bitartez.
- Onartu behar dugu pertsona bakoitzaren kulturak eta errealitateak haren erabakiak eta inguruabarrak baldintzatzen dituela eta, hortaz, kontuan hartu behar dugula hori beste kultura batzuetako pertsonengana hurbiltzean.

## LAGUNTZA, KONTSULTA ETA ERREFERENTZIAKO MATERIALAK

- ALBOANen webgunea:  
<https://www.alboan.org/es>
- ALBOANen hezkuntza-komunitatea:  
<https://www.edukalboan.org/es>
- Mugetatik Haratago: lekualdatze behartuen inguruko proposamen pedagogikoa  
<https://www.edukalboan.org/es/unidad/mugetatik-haratago-propuesta-pedagogica-sobre-migracion-y-refugio>
- Mugetatik harago: emakume eta neskato migratzaile eta errefuxiatuak  
<https://www.edukalboan.org/es/unidad/mas-alla-de-las-fronteras-mujeres-y-ninas-migrantes-y-refugiadas>
- Mugetatik harago: klima-aldaketa eta migrazioak  
<https://www.edukalboan.org/es/explorar/ecologia-y-medioambiente?temas=55>
- Mugetatik harago: Toki bat munduan
  - Erakusketa:  
<https://www.edukalboan.org/es/unidad/un-lugar-en-el-mundo-mas-alla-de-las-fronteras>
  - Erakusketaren gida didaktikoa:  
<https://www.edukalboan.org/es/unidad/un-lugar-en-el-mundo-mas-alla-de-las-fronteras-guia-de-la-exposicion>
- Change: babesari eta migrazioari buruzko proposamen pedagogikoa  
<https://www.edukalboan.org/es/unidad/change-propuesta-pedagogica-sobre-migracion-y-refugio>

Informazio gehiago nahi izanez gero, ALBOANekin harremanetan jar zaitezke: [educacion@alboan.org](mailto:educacion@alboan.org)